



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2022/23 Denboraldia

## 4. ZK. DUN ZIRKULARRA

### LEHIAKETAKO EPAILE BAKARRARI, DIZIPLINA BATZORDEARI ETA GORAJOTZE BATZORDEARI ALEGAZIOAK AURKEZTEA


Beste denboraldi bat hastekoa dela-eta, ondoren, klubek halakoetan bete beharreko arauak zehaztuko ditugu:

1.- Arbitroak, edozein arrazoi tarteko, **AKTA** aurkezten ez badu, partida amaituta, akta jaso ahal izateko, klubak federazio honekin harremanetan jarri behar du, aktari egoki irizitako alegazioak arauzko epean aurkeztu ahal izateko xedez.

2.- Dagokion diziplina organoari alegazioak aurkeztu nahi dizkieten klubek organoko idazkaritzari jakinarazi behar diote, **partida hori jokatu denetik bigarren laneguneko hamalauak baino lehen nazional eremuko mailetan.**

**Euskal mailako txapelketetan egun berberako hamazortziak baino lehenago.** Alegazioei klubak egoki irizitako beste frogak bideak erantsi behar zaizkio, frogagarri gisa, hurrengo irizpideak kontutan hartuta:

- Alegazio eta frogak emailez [alegaciones@euskadifutbol.eus](mailto:alegaciones@euskadifutbol.eus) helbidera, fax-ez, mezulari edo postaz bidali daitezke. Hauek CD, DVD edo beste antzeko biltze motako unitateetan, alegazio epea amaitu baino lehen, disziplina organuaren idazkaritzan egon behar da. Idatziak klubeko helbide elektronikoko ofizialetik bidaliak izan behar dira, edo mezulari edo fax-ez bidali ezker, klubeko ziligu edo bereizgarriekin.
- Alegazio guztiek klubaren zigilua eta presidentearen edo idazkariaren sinadura izan beharko dute.
- Kontutan hartuko diren bideo formatuak .avi eta .mpg izango dira, beste edozein formatu ez du organu disziplinarioak zergaitik kontutan eduki behar. Web orrialdeei link-ak edo dokumentu eta probak aurkezteko jeitsiera link-ak ez dira onartuak izango



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3.- Azkenik, gogora ekarri behar dugu **Gorajotze Batzordeari ezin aurkeztuko zaizkiola**, froga agiri edo bide gisa, eskueran eduki arren dagokion Epaille Bakarrarekin edo Diziplina Batzordearekin baliatu ez zirenak. Gorajotze Batzordeari bidaltzen diren alegazioak, [apelacion@euskadifutbol.eus](mailto:apelacion@euskadifutbol.eus) posta elektronikora bidali behar dira. **Idatzia klubaren zigiluarekin eta Presidentearen edo Idazkariaren sinadurarekin bidali behar da.**

Gorajotze Batzordearen aurreko errekurtsuak klubaren zigiluarekin eta presidentearen edo idazkariaren sinadurarekin aurkeztu beharko dira.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2022ko uztailaren 13an

ALLICA

**KEPA ALLICA BILBAO**  
Secretario General